

KOSTU EGITURA

Hainbat kostu finkori aurre egin beharko diogu guk, hauek ekoizpenarekin edo salmentarekin zuzenean lotuta ez dauden baina enpresaren funtzionamenduan ezinbestekoak diren gastuak dira. Lehenik eta behin, langileen soldatak ordaindu beharko ditugu. Gainera, instalazioak ordaindu beharko ditugu, hala nola, fabrika eta gure dendaren alokairua. Ezin dugu ahaztu azpiegiturak ordaintzearen garrantziaz; ura, elektrizitatea, argindarra, makineria... Azkenik aseguruak eta zergak finantziatu beharko ditugu baita ere Kotxe enpresa batek hainbat aseguru ordaindu behar ditu, hala nola, lantegiko segurtasun aseguruak, lan-arriskuen aseguruak, eta bestelakoak. Kostu hauek guztiak ez daude produktu bakoitzaren edo zerbitzuaren salmentarekin lotuta, eta horregatik dira finkoak, epe luzeak eta aldiro aldatzen ez direnak.

Gure enpresaren kostu aldakorrak, produktibitatea edo salmenten bolumenarekin zuzenean erlazionatzen diren kostuak dira. Horrela, kostu hauek handiagoak izan daitezke produkzio gehiago badago, edo txikiagoak salmenta eta ekoizpen maila txikiagoarekin. Jarraian aipatuko ditugun kostuei egin beharko diegu guk aurre: Alde batetik, materiala eta osagaiak, produzitzen ditugun kotxe kopuruaren baitan material gehiago edo gutxiago erosi beharko dugu eta hortaz gastuak altuagoak edo baxuagoak izango dira. Bestalde, ekoizpen kostuak hartu behar ditugu kontuan, hauek kotxe bat muntatzeko behar den lanaren prezioa dira. Produktuak fabrikatik distribuzioko eta salmenta puntuetara eramateko behar diren garraio kostuak (garraio kostuak).